

2011ko IRAILAREN 15eko UDALBATZARRA
PLENO DE 15 DE SEPTIEMBRE DE 2011

BERTARATUAK / ASISTEN:

ALKATEA / ALCALDESA: M^a SOL MARGARITA TABERNA IRATZOKI

ZINEGOTZIAK / CONCEJALES:

JON ABRIL OLAETXEA, FERNANDO BERASAIN GAINZA, JAIONE ANDUEZA INTXAURRONDO. JOSE M^a TELLECHEA MICHELENA, GARAZI TABERNA TELLECHEA, JOSE MANUEL PORTU BERASATEGUI, ANDREA GOURAUD ALZUGARAY, SANTIAGO ALZUGUREN MACHICOTE, ISIDORA AGUIRRE UBIRIA, JUAN LOSA OCARIZ.

IDAZKARIA / SECRETARIA: PILAR CHUECA INTXUSTA.

BERTARATU EZ DIRENAK / NO ASISTEN:

Inor ez.

Tokia: BERAko Herriko Etxea.
Eguna: 2011-09-15
Ordua: 19:30
Bilera-mota: ohikoa, 1. deialdia

Lugar: Casa Consistorial de BERA.
 Día: 15-09-2011
 Hora: 19:30
 Tipo sesión: ordinaria, 1^a convocatoria.

TRATATZEKO GAIK:

ASUNTOS A TRATAR:

1.- AZKENEKO AKTA ONARTZEA.-

1.- APROBACIÓN ACTA SESIÓN ANTERIOR.-

*Jose M^a Tellecheak zera aipatu du:
 Ez dago ados aktarekin e-maila bidali zuen zerbait gaineratzeko eta ez da sartu.*

José M^a Tellechea manifiesta que no está de acuerdo con el acta, envió un e-mail para que se añadiera algo y no se ha hecho.

*Idazkariak erantzun dio:
 Aurreko astean berari azaldu zion moduan, Antolakuntza- eta Jarduera Araudiak xedatzen duen nola eta nork egin behar ditu aktak, hau da, zelako datuak jarri behar dira, eguna, ordua, bertaratuak..... eta parte-hartzailetzari buruz “iritzi sintetizatuak” dio*

*La Secretaria le contesta:
 Como ya le dijo la semana pasada, el Reglamento de Organización y Funcionamiento establece cómo y quién hace las actas, esto es, qué datos hay que reflejar, el día, hora, asistentes..... y en cuanto a las intervenciones dice “opiniones sintetizadas” y es la Secretaria*

eta Idazkaria da akta egin behar duena.

quien debe extender el acta.

Hala ere, nahi badute zerbait zehatza aktan agertzea, momentuan, erran behar diote berak oharra hartzeko edo idatziren bat irakurri badute, testua pasatu, transkribatu ahal izateko, egokia bada.

De todos modos, si quieren que algo concreto se refleje en el acta, lo deben hacer constar en el momento para que tome nota de ello y si leen un texto, se lo pueden pasar para poder transcribirlo si procede.

Jose M^a Tellecheak errepikatu du ez bada zuzenketa egiten ez dute akta onartuko.

José M^a Tellechea insiste que si no se hace la modificación no aprobarán el acta.

Bozkatu ondoren, 7 boto alde (Aralar, EAJ/PNV eta UPN) eta 4 aurka (Bildu) agertu dira.

Sometida a votación, resultan 7 votos a favor (Aralar, EAJ/PNV y UPN) y 4 en contra (Bildu).

Beraz, 2011.eko uztailaren 28an egindako bileraren akta ikusirik, ONARTU DUTE.

Por lo que, vista el acta de la sesión celebrada el día 28 de julio de 2011, SE APRUEBA.

2.- TASAK ETA PREZIO PUBLIKOEN TARIFAK ALDATZEKO HASIERA BATEZ ONESTE, 2012.eko EKITALDIA.

2.- APROBACIÓN INICIAL MODIFICACIÓN TARIFAS TASAS Y PRECIOS PÚBLICOS, EJERCICIO 2012.-

Alkateak azaldu du Ogasun Batzordean tratatu dela eta KPI (%3a) igo dela.

La Alcaldesa explica que se ha tratado en la Comisión de Hacienda y se ha subido el IPC (3%).

Aho batez, honako erabakia hartu dute:

Por unanimidad, adoptan el siguiente acuerdo:

Ikusirik, 2012.eko Tasak eta Prezio Publikoen tarifak aldatzeko espedientea.

Visto expediente de modificación de las tarifas de las Tasas y Precios Públicos para 2012.

Kontuan hartuz, Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legearen 325. artikulua eta Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legearen 13. artikulua xedatzen dutena.

Teniendo en cuenta lo establecido en el artículo 325 de la Ley Foral 6/1990 de Administración Local y en el artículo 13 de la Ley Foral 2/1995 de Haciendas Locales.

ERABAKI DUTE:

SE ACUERDA:

1) Honako prezio publiko eta Tasa hauen tarifak, espedientean daudenak, hasiera batez aldatzeko onartzea:

1) Aprobar inicialmente la modificación de las tarifas de las siguientes Tasas y Precios Públicos, según constan en el expediente:

- Bide publikoko lurpea, hegalkina eta lurzorua aprobetxamendu berezientzatiko tasak.

- Tasas por aprovechamientos especiales del suelo, vuelo y subsuelo de la vía pública.
- Tasas por tramitación y expedición de do-

- Agiriak tramitatu eta luzatzeagatiko tasak.
 - Udal kirol Instalazioak erabiltzeagatiko tasak.
 - Irekitze baimenarengatiko tasak.
 - Animalia arriskutsuak eta bestelakoak edukitzeagatiko tasak.
 - Musika Eskolako tasak.
 - Saneamendu eta ur hornidurarengatiko tasak.
 - Trafiko isunak.
- 2) Tarifa hauek jendaurrean paratzea 30 egunez, iragarkia Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta Herriko Etxeko iragarki oholean argitaratu eta gero, herritarrek eta bidezko interesa dutenek denbora horretan espedienteaz aztertze aukera izan dezaten.
- 3) Erreklamazio, kexa edo oharrik aurkezten ez bada lehen aipatutako epean, hasierako onespén hau behin betiko bilakatuko da. Kasu honetan, ondorio juridikoak sortzeko, gertaera hau, behin betiko testuarekin batera, Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.
- 4) Behin betiko onspénaren ondoren, Nafarroako Gobernuaren Ordenantza Fiskalaren Erregistrora aldaketa hauek bidaltzea.
- cumentos.
 - Tasas por utilización de Instalaciones Deportivas Municipales.
 - Tasas por licencia de apertura.
 - Tasas por tenencia de animales potencialmente peligrosos
 - Tasas de la Escuela de Música.
 - Tasas de abastecimiento de agua y saneamiento.
 - Infracciones de tráfico
- 2) Exponer al público dichas tarifas, previo anuncio en el Boletín Oficial de Navarra y en el tablón de anuncios del Ayuntamiento, por el plazo de 30 días para que los vecinos e interesados legítimos puedan examinar el expediente.
- 3) Si no hubiera reclamaciones, reparos y observaciones en el plazo indicado en el punto anterior el acuerdo de aprobación inicial pasará a definitivo. En este caso, para la producción de efectos jurídicos, se publicará esta circunstancia, junto con el texto definitivo en el Boletín Oficial de Navarra.
- 4) Una vez realizada la aprobación definitiva, remitir estas modificaciones al Registro de Ordenanzas Fiscales del Gobierno de Navarra.

3.- KATASTROA MANTENTZEKO AURREKONTUAREN KONTU-SAILA HAN-DITZEKO 2011ko AURREKONTUAN KREDITU GEHIKUNTZA HABILITATZEKO ESPEDIENTEA, HASIERA BATEZ ONESTEA (11/2)

3.- APROBACIÓN INICIAL EXPEDIENTE HABILITACIÓN DE SUPLEMENTO DE CRÉDITO EN EL PRESUPUESTO 2011 PARA LA AMPLIACIÓN DE LA PARTIDA PRESUPUESTARIA DE MANTENIMIENTO DE CATASTRO. (2/11).

Idazkariak azaldu du gaia eta prozedura eta ondoren, aho batez, honako erabakia hartu

La Secretaria explica el asunto y su procedimiento, tras lo cual, por unanimidad, se adopta

dute:

Ikusirik, Kontu-hartzaileak 2011ko irailaren 8an egindako txostena, non 2011rako onartu den aurrekontuan “Katastroa mantentze”ko kontu-saila ez da nahiko izanen behar den gastuetarako.

Kontuan hartuz, aipatu txostenean kreditua gehikuntza izapidetu behar dela diola eta gastu orokorretarako Diruzaintzako Gera-kin Garbiaren kargura finantzatzeko proposatu duela.

Nafarroako Toki Ogasunei buruzko Foru Legearen 212., 213. eta 214. artikuluei jarraikiz.

ERABAKI DUTE:

- 1) **2011ko irailaren 8an Kontu-hartzaileak egindako txostenean agertzen den kredituaren gehikuntza hasiera batez onestea.**
- 2) **Aipatu espedienteen (11/2), Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta Udal Iragarki Taulan aldez aurretik iragarrita, 15 laneguneko epean jendaurrean egotea herritarrek eta interesatuek azter dezaten eta nahi dituzten erreklamazioak jar ditzaten.**
- 3) **Lehen aipatutako jendaurreko epea iragan ondoren erreklamaziorik ez balego, espediente hau behin betiko onestetzat hartuko dela ohartaraztea.**

4.- 9. POLIGONOKO 302. ETA 304. LURZATIETAN (APEZABAITA) PLANEAMENDUARI BURUZKO HIRIGINTZA HITZARMENA ONESTEA

Idazkariak azaldu du espedientea eta bere prozedura eta ondoren, aho batez, honako

el siguiente acuerdo:

Visto informe emitido por el Interventor de fecha 8 de septiembre de 2011 en el que manifiesta que la partida presupuestaria del presupuesto para el año 2011 de “Mantenimiento de Catastro” no será suficiente para el gasto que se debe realizar.

Teniendo en cuenta que en el citado informe señala que debe tramitarse un expediente de suplemento de crédito y propone su financiación con cargo al Remanente Líquido de Tesorería para gastos generales.

De acuerdo con lo establecido en los artículos 212, 213 y 214 de la Ley Foral de Haciendas Locales.

SE ACUERDA:

- 1) Aprobar inicialmente el suplemento de crédito que consta en el informe del Interventor de 8 de septiembre de 2011.
- 2) Exponer dicho expediente (2/11) en Secretaría por período de quince días hábiles, previo anuncio en el Boletín Oficial de Navarra y en el Tablón de Anuncios, a fin de que los vecinos o interesados puedan examinar el expediente y formular las reclamaciones que estimen pertinentes.
- 3) Indicar que, si no se formularen reclamaciones, el expediente se entenderá aprobado definitivamente, una vez transcurrido el periodo de exposición pública señalado en el punto anterior.

4.- APROBACIÓN CONVENIO URBANÍSTICO DE PLANEAMIENTO DE LAS PARCELAS 302 Y 304 DEL POLÍGONO 9 (APEZABAITA).

La Secretaria explica el expediente y su procedimiento, tras lo cual, por unanimidad, se adop-

erabakia hartu dute:

Ikusirik, 9. poligonoko 302. eta 304. lur-zatietan Planeamenduari buruzko Hirigintza Hitzarmenaren espedientea, “Xabi y Mikel Prieto Promociones Inmobiliarias s.l.”k aurkeztua.

2010eko apirilaren 29an Udalak lur-zati hauetarako Planeamenduari buruzko Hirigintza Hitzarmen bat onetsi zuen baina enpresa sustatzaileak, azkenean, ez zuen sinatu.

Aurten, lur-zati berdinetako beste Planeamenduari buruzko Hirigintza Hitzarmen bat aurkeztu du.

Lurraldearen Antolamendu eta Hirigintzari buruzko 35/2009 Foru Legearen 24.2 artikuluari jarraikiz jendaurrean egon ondoren ez da alegaziorik aurkeztu.

Ikusirik honi buruz, espedientean dauden Nasursak eginiko txosten teknikoak, 2011ko maiatzaren 10 eta uztailaren 20koa.

Kontuan hartuz, planeamenduari buruzko hirigintza hitzarmenen onespena Udalbatzaren eskumena dela.

Hirigintza eta Lurraldearen Antolamenduari buruzko 35/2002 Foru Legearen 23. eta 24. artikuluekin bat etorritz.

ERABAKI DUTE:

1) 9. poligonoko 302. eta 304. lur-zatietan Planeamenduari buruzko Hirigintza Hitzarmena onestea, “Xabi y Mikel Prieto Promociones Inmobiliarias s.l.”k, 2011ko martxoan aurkeztua.

ta el siguiente acuerdo:

Visto expediente sobre Convenio Urbanístico de Planeamiento en las parcelas 302 y 304 del polígono 9, presentado por “Xabi y Mikel Prieto Promociones Inmobiliarias s.l.”.

Con fecha 29 de abril de 2010 el Ayuntamiento aprobó un Convenio Urbanístico de Planeamiento sobre estas mismas parcelas pero la empresa promotora, finalmente, no lo firmó.

Este año ha presentado otro Convenio Urbanístico de Planeamiento sobre las mismas parcelas.

Finalizado el plazo de exposición pública realizado en virtud de lo establecido en el artículo 24.2 de la Ley Foral 35/2002 de Ordenación del Territorio y Urbanismo no se ha presentado ninguna alegación

Vistos los informes técnicos emitidos al efecto por Nasursa, obrantes en el expediente, de fechas 10 de mayo y 20 de julio de 2011.

Teniendo en cuenta que la aprobación de los convenios de planeamiento son competencia del Pleno.

De conformidad con el artículo 23 y 24 de la Ley Foral 35/2002 de Ordenación del Territorio y Urbanismo.

SE ACUERDA:

1) Aprobar el Convenio Urbanístico de Planeamiento en las parcelas 302 y 304 del polígono 9 presentado por “Xabi y Mikel Prieto Promociones Inmobiliarias s.l.” en marzo de 2011

2) Erabaki hau hartu eta 15 lan egunetara onetsitako hitzarmena sinatu behar dela enpresa interesatuari adieraztea.

2) Comunicar a la empresa interesada que en el plazo de 15 días hábiles, desde la recepción de este acuerdo, deberá firmarse el convenio aprobado.

3) Erabaki hau interesatuari jakinaraztea.

3) Notificar este acuerdo a la interesada.

5.- ANIMSAKO JUNTA OROKORREAN UDAL ORDEZKARI IZENDATZEA.

5.- DESIGNACIÓN DE REPRESENTANTE EN LA JUNTA GENERAL DE ANIMSA.

Aho batez, honako erabakia hartu dute:

Por unanimidad, adoptan el siguiente acuerdo:

Ikusirik, ASOCIACIÓN NAVARRA DE INFORMÁTICA MUNICIPAL S.A. (ANIMSA) sozietateak igorritako idazkia, non gaztigatzen baitu akziodunen Ohiz Kanpoko Batzar Orokorra egitekoa dela, 2011ko irailaren 19an.

Visto escrito de ASOCIACION NAVARRA DE INFORMÁTICA MUNICIPAL, S.A. (ANIMSA), por el que se comunica que se va a celebrar Junta General Extraordinaria de accionistas el próximo día 19 de septiembre de 2011.

ERABAKI DUTE:

SE ACUERDA:

1) M^a SOL M. TABERNA IRATZOKI Alkatea izendatzea, ANIMSAren Batzar Orokorretara joateko BERAko Udalaren izenean.

1) Designar a la Alcaldesa M^a SOL M. TABERNA IRATZOKI para asistir en representación del Ayuntamiento de BERA a cada una de las Juntas Generales que celebre ANIMSA.

2) Joaterik eduki ezean, ahalmena ematen zaio Udalbatzako beste kide bat ordezkaritza honetarako eskuordetzeko, betiere, Kapital Sozietateen Legearen 184. artikuluan aurreikusitako ondorioetarako.

2) De no poder asistir, se le faculta para que delegue la representación en otro miembro de la Corporación, a los efectos previstos en el artículo 184 de la Ley de Sociedades de Capital.

6.- CEDERNA-GARALUR ELKARTEAREN ZUZENDARITZA BATZORDERAKO ESKUALDEKO HAUTAGAIA PROPOSATZEA.

6.- PROPUESTA DE CANDIDATO DE LA COMARCA A LA JUNTA DIRECTIVA DE LA ASOCIACIÓN CEDERNA-GARALUR.

Jon Abrilek azaldu du Bortziri mailan izandako bilera eta hor erabaki zela bera izatea Bortziritako hautagaia.

Jon Abril explica la reunión celebrada a nivel de Bortziriak y que se decidió que fuera él el candidato de Bortziriak.

Garazi Tabernak galdetu du ea ez den Plenoetan erabaki beharra bilera horretan zein izango zen hautagaia.

Garazi Taberna pregunta si no se debe decidir en el Pleno quién sería el candidato a proponer en esa reunión.

Erantzuten zaio dela Mankomunitateetan

Se le contesta que como en las mancomunidades

bezala ordezkariak erabakitzen dute eta bileran horrela egin zen.

Jose M^a Tellecheak erran du lehenbiziko Plenoan erabaki eta gero izendatu egin behar dela hautagaia.

Santiago Alzugurenek erantzun dio orain bezala beti egin dela , aurreko legegaldian ere, Lesakakoa erabaki zen bileran eta, horrela, onartu zuten osoko bilkuran.

Horren ondotik, bozketa egin eta 7 boto alde (Aralar, EAJ/PNV eta UPN) eta 4 abstentzioekin (Bildu), honako erabaki hau hartu dute:

Ikusirik, CEDERNA-GARALURrek bidalitako idatzia non elkarte honetako Zuzendaritzako Batzordea berritzeko hauteskunde prozesua hasi dutela eta Batzorde berri horretan zonaldeko ordezkaria hautesle proposatzen ahal dela jakinarazi duen.

ERABAKI DUTE:

- 1) Aipatutako Zuzendaritzako Batzordean Bortzirietako ordezkari gisa Udal honetako zinegotzia den JON ABRIL OLAETXEA proposatzea.
- 2) Erabaki hau Cederna-Garalur Elkarteari bidaltzea.

7.- JOSE M^a ERRANDONEA AGUIRREK JARRITAKO 479/2011 ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZIETAKO ERREKURTSOAN DEFENDATZEKO ABOKATUA ETA PROKURADOREA IZENDATZEA.

Aho batez, honako erabakia hartu dute:

los representantes deciden y así se hizo en la reunión.

José M^a Tellechea dice que primero se debería decidir en el Pleno y luego designar el candidato.

Santiago Alzuguren le contesta que como ahora se ha hecho siempre, en la anterior legislatura, también, en la reunión se decidió que el de Lesaka y, así, se aprobó en el Pleno.

Tras lo anterior, se realizó la votación y con 7 votos a favor (Aralar, EAJ/PNV y UPN) y 4 abstenciones (Bildu), se adoptó el siguiente acuerdo:

Visto escrito remitido por CEDERNA-GARALUR en el que comunica que ha iniciado el proceso electoral para la renovación de la Junta Directiva de dicha asociación y se puede proponer el candidato como representante comarcal en la nueva Junta Directiva.

SE ACUERDA:

- 1) Proponer como representante de Bortziriak en la Junta Directiva citada al concejal de este Ayuntamiento JON ABRIL OLAETXEA.
- 2) Trasladar este acuerdo a la Asociación Cederna-Garalur.

7.- NOMBRAMIENTO DE ABOGADO Y PROCURADOR PARA DEFENSA EN RECURSO CONTENCIOSO-ADMINISTRATIVO 479/2011 INTERPUESTO POR JOSE M^a ERRANDONEA AGUIRRE.

Por unanimidad, adoptan el siguiente acuerdo:

2011ko uztailaren 26an Administrazioarekiko Auzietako 1. Epaitegiak JOSE M^a ERRANDONEA AGUIRREk jarritako 479/2011 Administrazioarekiko Auzietako errekurtsoren berri eman dio Udalari.

Errekurtso hau Alkateak ekainaren 8an emandako 100/2011 ebazpenaren aurka (herri lurraren aprobetxamendua Amelia Lasagari esleitzekoaren aurka jarritako berraztertzeo errekurtsoa desestimatzeko duena) jarri du lehen aipatutakoak.

Orain, errekurtsoren demandari erantzuna eman behar zaio, beraz, errekurtsoren honetan defendatu eta ordezkatzeko abokatu eta prokuradore izendatu egin behar du Udalak.

Hori dela eta, ERABAKI DUTE:

1) Lehen aipatutako errekurtsoran Udala defendatu eta ordezkatzeko JOSE I. URDANGARIN ASIAIN eta EZEQUIEL URDANGARIN AYESTARAN abokatu eta ALFONSO MARTÍNEZ DE AYALA prokuradore izendatzea.

2) Erabaki hau izendatutakoei jakinaraztea.

8.- ALKATEAREN KONTRAKO PINTADAK DIRELA ETA, BABES MOZIOA.

Horrelako adierazpenak izan dira:

- Jon Abril: Larria da horrelako gauzak gertatzea, konpromisoa izan behar da holakoak ez gertatzeko.

- Garazi Taberna: Mozioaren asmoarekin ados dago baina ekintza ez da "amenaza".

- Jose M. Portu: Denbora izan dute solasteko eta hori egin beharrean prentsan salatu dute.

El 26 de julio de 2011 el Juzgado de lo Contencioso-Administrativo nº 1 comunicó al Ayuntamiento el recurso Contencioso-administrativo 479/2011 interpuesto por JOSE M^a ERRANDONEA AGUIRRE contra la Resolución de Alcaldía 100/2011, de 8 de junio, por la que se desestima el recurso de reposición interpuesto contra adjudicación de aprovechamiento comunal a Amelia Lasaga.

Ahora, procede la contestación a la demanda de dicho recurso por lo que debe nombrarse abogado y procurador para la defensa y representación del Ayuntamiento en el mismo.

Por ello, SE ACUERDA:

1) Nombrar a los abogados JOSE I. URDANGARIN ASIAIN y EZEQUIEL URDANGARIN AYESTARAN y al procurador ALFONSO MARTÍNEZ DE AYALA para la defensa y representación del Ayuntamiento en el recurso antes citado.

2) Notificar este acuerdo a las personas nombradas.

8.- MOCIÓN DE APOYO A LA ALCALDESA ANTE LAS PINTADAS APARECIDAS CONTRA ELLA.

Se realizan las siguientes intervenciones:

- Jon Abril: Es grave que ocurran este tipo de cosas, hay que lograr el compromiso de que no ocurran.

- Garazi Taberna: Está de acuerdo con la intención de la moción pero lo realizado no es una amenaza.

- José M^a Portu: Han tenido tiempo para hablar pero en vez de hacerlo, lo han denunciado en la prensa.

- Alkatea: Mozioa ez doa Bilduren aurka.

- Jose M^a Tellechea: Ez zaizkiela pintadak gustatzen baina hori “gamberrada” besterik ez da.

- Jon Abril: Hori berriz ez gertatzeko gauza dira lan egiteko eta Gernikako Akordioak hori bilatzen du. Mehatxua da alkatearen aurkako pintadak agertzea.

- Jose M. Portu: Nahi dutelikan solasten ahal dute, baina solastu gabe prentsan Bildu erreprobatzeko etabar erran dute.

- Santiago Alzuguren: Lehen izan ziren pintadak aurreko alkatearen aurka eta baita bere alde agertu ziren. Pintadak errespetu falta dira.

- Juan Losa: Bere babes guztia Alkateari. Pintadak errespetu falta dira eta adierazten dute ez dakitela demokrazian aritzea.

Bozketa egin da eta 7 boto mozioaren alde (Aralar, EAJ/PNV eta UPN) eta 4 abstentzio (Bildu) ageri dira.

Beraz, mozioa onartu dute honako testua izanik:

Alkatearen kontrako pintadak direla eta, babes mozioa

Joan zen abuztuaren 3an, Sanesteban bestetan, alkatearen kontrako pintadak agertu ziren Herriko Etxeko paretan. Legegintzaldia hasi zenetik bigarrenez agertu direnez gisa horretako pintadak, Berako Udaltzako honakoa agertu nahi du:

- 1. Pintada horien aitzinean, babes osoa agertzen diogu alkate andereari, eta Gernikako Akordioak bere hirugarren puntuan biltzen denarekin bat**

- Alcaldesa: La moción no va contra Bildu.

- José M^a Tellechea: No les gustan las pintadas pero no es más que una gamberrada.

- Jon Abril: Para que esto no vuelva a ocurrir están dispuestos a trabajar y el Acuerdo de Gernika es lo que busca. Amenaza es hacer pintadas contra la alcaldesa.

- José M. Portu: Cuando quieran están dispuestos a hablar, pero sin hablar han sacado en prensa la reprobación a Bildu y demás.

- Santiago Alzuguren: Antes ha habido pintadas contra el anterior alcalde y, también, se manifestaron a su favor. Las pintadas son una falta de respeto.

- Juan Losa: Su apoyo total a la Alcaldesa. Las pintadas son una falta de respeto y reflejan que no saben jugar en democracia.

Se lleva a cabo la votación y resulta 7 votos a favor de la moción (Aralar, EAJ/PNV y UPN) y 4 abstenciones (Bildu).

Por lo que, se aprueba la moción con el siguiente texto:

Moción de apoyo a la Alcaldesa, ante las pintadas aparecidas contra ella

El pasado 3 de agosto, en plenas fiestas de Sanesteban, aparecieron unas pintadas en contra de la Alcaldesa en las paredes del Ayuntamiento. Al ser la segunda vez en lo que va de legislatura que aparecen pintadas de este tipo, el Ayuntamiento de Bera quiere mostrar:

1. Su total apoyo a la Alcaldesa antes esas pintadas, y nos reafirmamos en el punto tercero del Acuerdo de Gernika: “La

egiten dugu: “inoren aurkako mehatxu, presio, jazarpen, atxiloketa eta tortura mota guztiak desagertzea, edozein dela ere pertsona horien jarduera edota ideologia politikoa”.

- 2. Udalbatza osatzen dugun taldeok konpromisoa hartzen dugu gisa bereko ekintzarik berriz ere gerta ez dadin lan egingen dugula, herrian elkarbizitzarako beharrezkoa den giroa sortzen lagunduz.**
- 3. Akordio hau herritarrei eta komunikabideei jakinaraztea.**

desaparición de todo tipo de amenazas, presiones, persecuciones, detenciones, y torturas contra toda persona por razón de su actividad o ideología política”.

2. Los grupos que formamos el Ayuntamiento nos comprometemos a trabajar para que no vuelvan a darse hechos similares en el futuro, ayudando a crear un ambiente de convivencia en el municipio.
3. Dar conocimiento de este acuerdo a la ciudadanía y a los medios de comunicación.

9.- BANDOAK ETA ALKATEAREN EBAZPENAK.-

Honako bando eta Alkatetzaren ebazpen hauetaz jakinen gainean gelditu dira:

- 1) Bandoak: B20/2011tik B21/2011ra.**
- 2) Ebazpenak: 2011ko uztailaren 26ko 128. ebazpenetik 2011ko irailaren 7ko 155.era arte.**

10.- ESKARIAK ETA GALDERAK. BESTE UDAL ORGANOEEN KONTROLA.

Ez dira burutu.

Besterik gabe, Alkateak bilera bukatutzat eman du 20:15etan.

O.E. ALKATEA/ V.B. LA ALCALDESA
M^a Sol M. Taberna Iratzoki

9.- BANDOS Y RESOLUCIONES DE ALCALDÍA.-

Se dan por enterados de los siguientes bandos y resoluciones de la Alcaldía:

- 1) Bandos: del B20/2011 al B21/2011.
- 2) Resoluciones: De la resolución nº 128 de 26 de julio de 2011 a la nº 155 de 7 de septiembre de 2011.

10.- RUEGOS Y PREGUNTAS. CONTROL DE LOS DEMÁS ÓRGANOS DE LA CORPORACIÓN.

No se producen.

No habiendo más asuntos, la Alcaldesa levanta la sesión a las 20:15 horas.

IDAZKARIA/ LA SECRETARIA
Pilar Chueca Intxusta